

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	ETXEKO GARBIKETA	Iraupena	30
Kodea	MF1330_1		
Lanbide-arloa	GIZARTE, KULTURA ETA KOMUNITATEKO ZERBITZUAK		
Lanbide-eremua	Kontsumitzailearentzako zerbitzuak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Etxeko lanak	Maila	1
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Etxeko kozinatzea	Iraupena	60
	Ohe, arropa eta etxeko oihalen prestaketa		30
	Etxeko lanetako lanbide-jardunbideak, lanekoak ez direnak.		80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC1330_1 ETXE PARTIKULARRAK GARBITZEA.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Etxe partikularren garbiketa baldintzatzen duten faktoreak zehaztea eta baloratzea

EI1.1. Garbitu beharreko tokian jendea egoteak zer eragin duen jakitea eta baloratzea, eta nola jardun adieraztea.

EI1.2 Etxe partikularrak garbitzean ura eta energia modu arduratsuan erabiltzeko modua deskribatzea, eta kontsumo orekatuaren ondorioak azaltzea.

EI1.3. Etxe partikularren garbiketari lotutako laneko arriskuak deskribatzea, eta non eta noiz ager litezkeen adieraztea, eta nola prebenitu azaltzea.

A2: Etxe partikularren barruko altzariak eta objektuak garbitzeko teknikak erabiltzea, behar diren prozedurak, tresnak eta produktuak baliatuz.

EI2.1. Guneak nola aireberritu adieraztea, noiz eta zenbat denboran egin behar den zehaztuz.

EI2.2 Etxe partikularretan hondakinak gaika nola bota deskribatzea, eta horretarako beharra eta ingurumen-onurak baloratzea eta argudiatzea.

EI2.3. Etxe partikularretako altzari eta objektu tipoen materialak identifikatzea, eta haiek garbitzeko prozedurekin erlazionatzea.

EI2.4 Garbitzeko tresna, produktu eta prozeduren erabilera justifikatzea, garbitu beharreko altzari- eta objektu-motaren arabera, haien ezaugarriak hondatzea saihesteko.

EI2.5 Lan egin den tokian kendu gabe utzitako zikin-arrastoak detektatzeko gerora nola ikuskatu finkatzea.

EI2.6. Etxe partikular bateko altzariak eta objektuak garbitzeko kasu praktiko batean:

- Leihoak behar adina denboran irekitzea gelak aireberritzeko.
- Garbiketarako informazio erabilgarri edo garrantzitsua ateratzea, aurrez altzariak eta objektuak aztertuz.
- Altzarien material-mota identifikatzea, eta material bakoitzarentzako garbiketa-prozedura egokia hautatzea.
- Aurreikusitako helburuak lortzeko zereginaren sekuentzia logikoa eta gutxi gorabeherako gauzatze-denbora zehaztea.
- Garbitu aurreko lanak egitea, garbiketa-lana errazteko.
- Tresna eta produktua hautatzea, eta produktua erabilera- eta dosifikazio-argibideei jarraikiz prestatzea.
- Prozedura, tresna eta produktua aplikatzea lortu nahi diren emaitzak lortzeko, eta lortzen direla egiaztatzea.
- Tresnak erabiltzeko moduan mantentzea, eta haien kontserbazioa bermatzea.

A3: Paretak, atek, zoruak, zokaloak eta alfonbrak garbitzeko prozedurak aplikatzea, etxean erabiltzeko tresnak eta produktuak testuinguruaren eta jardueraren arabera hautatuz.

EI3.1. Azaltzea jarduera-eremua nola aztertu zoruen eta alfonbren garbiketa antolatzeke, haien kontserbazioa bermatuz, haien materialen arabera, eta zereginei lotutako arriskuak aurreikustea.

EI3.2. Paretak, atek, zoruak, zokaloak eta alfonbrak garbitzeko aintzat hartu beharreko ezaugarriak ezagutzea, eta haien materialak baloratzea.

EI3.3. Paretak, atek, zoruak, zokaloak eta alfonbrak garbitzeko modua identifikatzea, ekintzak zehaztea, tresna eta produktu espezifikoak hautatzea, eta ekintza horien ondoriozko arriskuak prebenitzea.

EI3.4 Erratza, xurgagailua, mopa eta lanbasa erabiliz garbitzeko teknikak azaltzea eta praktikan jartzea, eta dagokien material-motarekin erlazionatzea.

EI3.5 Erraz erabiltzen diren aparatu elektromekanikoak, tresnak eta etxean erabiltzeko produktuak garbitu beharreko material-motaren arabera hautatzea justifikatzea.

EI3.6. Orbanak garbitzeko prozedura haiek agertu ohi diren gainazalekin erlazionatzea, eta haiek garbitzea.

EI3.7. Etxe tipo baten garbiketa-maiztasunaren taula bat egitea, eta denborak baloratzea.

CE3.8. Paretak, atekak, zoruak, zokaloak eta alfonbrak garbitzeko kasu praktiko batean:

- Garbiketarako informazio erabilgarri edo garrantzitsua ateratzea, jardura-testuinguruari behatuz.
- Norberaren lana antolatzea, eta espero diren emaitzak lortzeko zereginaren sekuentzia eta gutxi gorabeherako gauzatze-denbora zehaztea.
- Material-mota identifikatzea, eta garbiketa-teknika haren arabera hautatzea eta doitzea.
- Esku hartzeko eremuan enbarazu egiten duten objektuak badaude, handik kentzea.
- Tresna eta produktua hautatzea, beharrezkoa bada, eta garbitzeko produktua haren aplikazioei dagokienaren arabera dosifikatzea.
- Teknika, tresna eta produktua aplikatzea, eta espero diren emaitzak lortzen direla egiaztatzea.
- Lekuz aldatutako altzariak lehengo lekuetan jartzea, hasierako banaketa eta txukuntasuna errespetatzea.
- Prozesu osoan ura eta energia modu arduratsuan erabiltzea.
- Esku-hartzearen ondoriozko laneko arriskuak prebenitzea.

A4: Leihoetako kristalak eta inguruko elementuak (markoak, pertsianak eta burdin hesiak) garbitzeko teknikak erabiltzea, zeregin horretarako egokiak diren tresnak eta produktuak hautatzea, haien eraginkortasuna eta erabilgarritasuna egiaztatzea eta arriskuak saihestea.

EI4.1. Altuerari lotutako arrisku-kondizio bereziak identifikatzea eta azaltzea, eta haiek prebenitzeko ekintzak zehaztea.

EI4.2. Leihoetako kristalen eta inguruko elementuen (markoak, pertsianak eta burdin hesiak) ezaugarriak, kokapena eta duten zikinkeria-mota deskribatzea, eta garbitzeko prozedurarekin lotzea.

EI4.3. Leihoetako kristalen eta inguruko elementuen (markoak, pertsianak eta burdin hesiak) araberrako garbiketa-prozedura azaltzea, eta etxeko garbiketarako tresnak eta produktuak deskribatzea.

EI4.4. Leihoetako kristalak eta inguruko elementuak (markoak, pertsianak eta burdin hesiak) garbitzeko kasu praktiko batean:

- Garbiketa egiteko eta norberaren lana antolatzeko informazio garrantzitsua ateratzea, eta zereginaren sekuentzia eta gutxi gorabeherako gauzatze-denbora eta istripuak saihesteko prebentzio-neurriak zehaztea.
- Tresna eta produktua hautatzea, eta hautaketa justifikatzea.
- Prozedura aplikatzea, hautatutako tresnak eta produktuak erabiliz.

EI4.5 Deskribatzea leihoetako kristalak eta inguruko elementuak (markoak, pertsianak eta burdin hesiak) nola berrikusi, garbiketaren ondoren zikinkeria-arrastoren bat geratu bada detektatzeko, eta akatsak zuzentzeko jarraitu beharreko prozedura azaltzea.

Edukiak

1. Lanaren antolamenduaren alderdiak

- Etxeko garbitasun- eta higiene-prozedurak. Bezeroari egokitzea.
- Jasotako argibideak interpretatzea eta gauzatzea.
- Garbitzeko jardueren plangintza: sekuentzia eta maiztasuna.
- Lan-ingurunea prestatzea:
 - Jendea edo animaliak egotea garbitu beharreko gunean
 - Txukuntasuna zaintzea
 - Gelak aireberritzea
- Egindako lana egiaztatzea
- Garbitzeko jarduerari loturiko arriskuak identifikatzea
- Laneko etxeko arriskuak identifikatzea
- Produktuak erabiltzearen eta maneatzearen ondoriozko arriskuak identifikatzea
- Altueran lan egitearen ondoriozko arriskuak identifikatzea
- Jendea egotea garbitu beharreko gunean
- Norbera babesteko ekipoak erabiltzea.
- Bainugeletako eta sukaldeko ezbehar-kopurua.

2. Etxe partikular bateko geletako materialak, ekipoak eta gainazalak

- Garbitu beharreko elementuen eta tokien tipologia: altzariak, paretak, atekak, zokaloak eta alfonbrak, leihoak eta inguruko elementuak
- Materialen eta gainazalen konposizioaren identifikazioa: metalak, zura, ehunak, plastikoak, kristalak, metakrilatoa, larrua, harrizko edo harriz edo haren deribaturen batez eginiko produktuak, beste gainazal batzuk.
- Materialen eta gainazalen ezaugarriak zehaztea.
- Osagaien propietateak aldatzea.
- Merkatuan dauden tresnak identifikatzea
- Tresnak aukeratu eta erabiltzea
- Tresnak kontserbatzeko prozesuak
- Produktu-motak.
- Garbiketa-materiala
- Garbitzeko produktuen dosifikazioa
- Garbitzeko produktuen etiketetan dauden argibideak

- Garbitzeko produktuak gaizki erabiltzearen ondoriozko arriskuak identifikatzea
- Xurgagailua erabiltzea

3. Etxe partikularretako garbiketa-eragiketak

- Etxean dauden altzariak eta objektuak garbitzeko teknikak:
 - Garbitzeko teknikak, eta teknika bakoitzeko jardueren sekuentziak
 - Materialen eta garbitzeko tekniken zerrenda.
- Paretak, ateak, zokaloak eta alfonbrak garbitzeko teknikak:
 - Garbitzeko teknikak, eta teknika bakoitzeko jardueren sekuentziak
 - Materialen eta garbitzeko tekniken zerrenda.
- Gainazalen garbiketa eta higienizazioa:
 - Gainazalak garbitzeko eta higienizatzeko teknikak
 - Teknika bakoitzeko jardueren sekuentziak
- Leihotako kristalak eta inguruko elementuak (markoak, pertsianak eta burdin hesiak) garbitzeko teknikak:
 - Teknika bakoitzeko jardueren sekuentziak
- Komunak garbitzeko eta desinfektatzeko teknikak:
 - Aparatu sanitarioak garbitzeko teknikak
 - Azulejuak eta gehigarriak garbitzeko teknikak
 - Zoruak garbitzeko teknikak
 - Kontsumigarriak berritzeko eragiketak
- Orbanak garbitzeko teknikak:
 - Orban-motak identifikatzea: kosmetikoak, biologikoak, elikagaiak, edarienak, beste orban batzuk
 - Orbanak garbitzeko prozesuak
 - Produktu okerra aukeratzearen eragozpenak
- Hondakinak sailkatzea eta bereiztea
- Edukiontzia egokietan sartzea
- Garbiguneak erabiltzea
- Ura eta energia arrazoiz erabiltzeko irizpideak

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Ez dago sartzeko eskakizunik

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Empleo doméstico.